

LURRALDE-ANTOLAMENDUA EUSKAL HERRIAN: GAUR EGUNGO EGOERA, GATAZKAK ETA ERRONKAK

J. Arbaiza Álvarez eta P. Lozano Valencia (koordinatzaileak)

Udako Euskal Unibertsitatea, 260 or.

Bilbo, 2010

«Hondatutako industria-erabilera izan duten guneeak [...] erabaki baten zain daude. Hirigintza zorretan dago gizartearekin, aurreko urteetako gehiegikerien aurrean izan duen ostrukaren jarrera errudunari buelta emateko beharrean. Bada, hemen dauka joko-zelai paregabea, "gune marroi" ugari horiek ingurumen eta ekonomia-eredu eutsigarri baten aldeko adierazle bihurtzeko erronka hartu behar du»¹.

Joseba Arbaizak eta Peio Lozanok maisuki koordinaturik, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 2010ean argitaraturiko liburuak begien aurrean jartzen dizkigu XXI. mendearen hasieran Euskal Herriko lurralde-antolamenduaren panoraman bizi ditugun gatazkak eta erronkak. Hamazortzi autorek parte hartzen duten ekarpen interesgarriak hainbat alor eta diziplinaren ikuspuntutik jorratzen ditu plangintzaren ertz poliedrikoetan aurkitzen ditugun gaur eguneko arazoak eta hein baten irtenbideak; zenbait lurzoru mota, klima, erabilera eta berezitasun barnebiltzen dituen eremu geografiko txiki baizen aberasgarri honetako egoeraren nondik norakoak ongi azalduz. Esandakoaz gain, aipatzen gabiltzan lan kolektiboaren beste berritasun nabaria, eta ez nolana hiko, gure egunotan guztion ahotan darabiltzagun gai hauek euskaraz tratatzea litzateke. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu den eta momentu honetan jasaten dugun lu-

rralde-eredua eta haren antolamendua jomuga duten testuak erruz joan dira gorpuzten azken boladan. Askozaz gutxiago, aldiz, Euskal Herri osoa beregain hartzen dutenak. Beraz, hirugarren bertute hau ere atxiki beharko genioke lerro xume hauetara dakargun obra idatziari.



1. irudia. *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian* argitalpenaren azala.

Denboran oso atzera ez joatearren, gogoratzen badugu 1990etik 2000. urtera doan hamarkadan hasi zen Eusko Jaurlaritzaren lurraldeari zegozkion plangintzen dokumentuak plazaratzen; batzuk oraindino zirriborro-fasean eta beste batzuk tramite aurreratuagoekin. Garai horretakoak dira *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak* edo *Artez-pideak* (LAG/LAA, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-plangintzaren erpin gorena); hiruzpalau txosten desberdin burutu ziren, 1992an, 1994an eta 1997an hurrenez hurren. Lurralde-antolamen-

1. Bilbao, A. (2013). "Brownfields": hondatutako lurzoru industrialak berrerabiltzeko egitasmoen kontraesanak", *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 15, 6.

duaren beheragoko eskalan leudeke lurraldearen plan partzialak edo atalkoak, gure herria banatuta daukagun zati edo «eremu funtzional» bakoitzari dagozkionak. Paraleloan, *Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Lur Industrialaren Lurralde-Plan Sektorialaren* beste bizpahiru edizio agertu ziren 1990eko hamarraldiaren erdialde horretan. Tresna tekniko horien berrikuspenak gerora onartua izan den Lurzoruari buruzko Legearen estrategia juridikoaren itzalpean (izenburu berberekin: *Lurzoruari buruzko Legea*, Eusko Jaurlaritzak eta EHUK bertsio elebiduna atondu zuten 2009an) aurrera eraman ahal izateko eguneraketa multzoa proposatu beharko du, eta badirudi eginkizun horretan dihardugula, gizarteko ezein sektore eta alderditatik jaiotzen dabilzan grina eta norabide-aldaketaren intentzioei kon-tuz begiratzen badiegu. Botere politikoak berak eskatu izan ditu diagnostikorako informeak eta analisi kritikoak (horien artean Eugenio R. Urrestarazu eta Xabier Unzurrunzagarenak gainbegiratu ditzakegu www.ingurumena.ejgv.euskadi.net helbidean, biak ere 2006koak).

Administrazioko dokumentu hauen harian lurraldearen afera ikergai zeukaten egileen liburuki anitz ezagutu genituen. Besteak beste, José Allende Landa EHUKo katedradunaren eskutik (2000, 2002), Jesús María Erquicia Olaciregiren ikerkuntzak (2003), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE/IVAP) eskainitako beken oste-ko idazlanen argitalpenak, eta beste hainbeste. Noski, lehenagotik bage-neukan lurraldearen baitako gogoetak planteatzen zituzten liburu eta artikulua sorta; batik bat Bilboko metropoliaren inguruan egin ziren azterketa ugari, baina horiek ez ditugu hona ekarriko, normalean eskualdeaz haratagoko

lurraldearen tratamendua ez baitzen modu orokorrangoan eztabaidatzen. Hirigintzaren maila honetan kokatuko genuke hiriburuei buruz daukagun bibliografia zabala eta zehatza kasu batzuetan (Bilbo eta Donostia), motelagoa besteetan (Gasteiz, Iruñea) eta sano urria Baionari dagokionean adibidez, besteen artean arrazoi historikoak direla medio. Euskal Autonomia Erkidegoko udal handiek hiri-antolaketa- ren egitamu orokorren erredakzioak apurka-apurka publiko egin dituzte urte bertsuetan. Parekoak dira «Cities» proiektuaren baitan Eusko Jaurlaritzak XX. gizaldiari adio esateko mahai gainean jarritako etorkizunerako grinak ere.

Halaber, Euskal Herria osotasunean hartuko bagenu, zenbakitan ahalegin eskas batzuk eskuratu ahal izango genituzke, nahiz eta kualitatiboki nabariak izan. Horien artean, Andeka Larrea eta Garikoitz Gamarraren egikera onaz egile anitzen kapituluekin konposaturiko *Euskal Hiria: reflexión sobre la ciudad y las ciudades vascas* (exJ-Liburuak, Bilbo, 2012). Bestalde eta adinez lau edo bost urte zaharragoa den *L'aménagement du territoire en Pays Basque* (Dakit argialetxea eta Eusko Ikaskuntza Région d'Aquitaine eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Gasteiz, Zarautz, 2007-2008) dauka- gu, gehiengo frantsesez euskarazko idazki bakarrarekin, Eguzki Urteaga EHUKo irakasleak gidatua eta Eusko Ikaskuntzak bultzatu zuen mugaz gain- diko egitasmu baten emaitza. Eusko Ikaskuntzak ere, Baiona-Donostia Eus- kal Eurohiriari buruzko gogoeta-jardu- naldiak deitu zituen 2000. urte aldera, eta izenburu horrekin Euskal Herriko hiru hizkuntzetan: euskara, gaztelania eta frantsesa 2001ean *Azkoaga. Gi- zarte eta Ekonomia Zientzietako Koa- dernoaren* 11. monografikoan bildu zituen. Alabaina, Txomin Peillenen

artikulu erdia soilik zegoen euskaraz. Azkenez, aldizkarietara baldin bagoaz, lurraldearen gaineko perspektiba eta ikuspuntu zientifiko zein kritiko mordoa erakusten du jadanik hamabost zenbaki betetzea lortu duen Udako Euskal Unibertsitateko *Aldiri. Arkitektura eta abar* hiruhilabetekari bikainak, Euskal Herriko arkitekto gazte talde batek zuzendua (paperezko aleez gain laburpen eta sintesiak aldiro-aldiro ematen dira Unibertsitatea.net Blog atarian: www.unibertsitatea.net/blogak/aldiri). Beraz, oraingoan ere UEUK esfortzu berezia egin duela uste dugu, jakintza-esparru askotan legez geneukan zuloa nolabait betetzen, eta horren ondorio laudagarria da *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak*.

Haien artean josiak, ohiko hitzaurrearen ondoren bakoitza bere erreferentzia bibliografikoekin 15 lan kateatzen dituen aurkibideak Ipar eta Hego Euskal Herrian eragina duen lurralde-antolamenduaren mugariak, kontzeptualizazioa, plangintzaren esperientzia eta gorputz tekniko juridikoen komentarioak dakartza lehen planora. Bestalde, natura-eremu babestuen balorazioa, energia-iraunkortasuna, laborantza- eta nekazaritza-guneen garrantzia, mugikortasuna eta hari dagozkion gogoetak edota talde ekologista lokalen gorabeherak presente izango ditugu liburuaren 255 orrietan.

Soberakinik gabeko mamia

«Lurralde-antolamendurekiko kezkak europar herrialdeetan eta Ameriketako estatu Batuetan du jatorria —herrialde bakoitzean bere adierarekin—, industria iraultzaren

garapenean. Izan ere, XIX. Mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako industrializazio-prozesuak hirigintza-prozesu garrantzitsuak abiarazi zituen industria-jardueraren gune ziren hirietan»².

Lurralde-antolamenduaren jakintza-arloaren erpin poliedrikoez kontu eginez, laster nozituko dugu zientziadiziplina bat izateaz gain zeharkakoa edo diziplinartekoa ere badela. Bertan topo baino gehiago talka egiten baitute gainontzeko hamaika ezagutza-esparruk ere. Jorratu beharreko angeluak, hortaz, inguruneari, populazioari eta horren oinarri ekonomiko zein soziokulturalari, hiri-sareari (hierarkiak, orekak, nodoak...) eta marko normatiboari dagozkienak direla argi usten digute P. Lozano eta J. Arbaizak. Aldi berean, lurralde-antolamenduak prospekziozionala (etorkizunari begira dagoena), sistematikoa bezain dinamikoa eta malgua (denboran gertatutako aldaketez jabetzeko nahiz aberasteko) eta «demokratikoa» izan beharko du (populazioak parte zuzenagoa har dezan plan mamitsuagoen hutsunea igartzen da, alegazioen aurkezpenen prozedura tradizionalen desegokitasuna begibistan baitago).

Edozelan ere, Euskal Herriko gure bazterretan dakusagun paisaia guztiz kulturalean tentuz eragiteko plangintza artikulatzailea beharko genuke garatu (benetan estrategikoa, egituratzailea, operatiboa eta exekutiboa), batez ere gizakiaren presio demografikoak eragindako kalteak behar bezala neurtuz eta bien bitartean ingurumena berreskuratzearen aldeko apustuak sendotuz, hala nola azalerarik kaltetuenetan: Bilboko metropolia, Donostialdeko Pa-

2. Urkidi Elorrieta, P. (2010). "Lurralde-antolamenduaren kontzeptualizazioa eta EAEko lurralde-plangintzaren lehen esperientziak", in J. Arbaiza Álvarez eta P. Lozano Valencia (koord.), *Lurralde-Antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 2010, 78.

saia eta bestelako «argi gorriak» (neurri gabeko portu eta aireportuak, komunikazio-sareen ugartasuna eta batzuetan demasia, parke teknologikoen lurzoru-okupazio altua, etab.). Horiek eta beste hainbat argiro uzten dizkigu hitzetan darabilgun liburuak.

Alegia, ados gaude lurralde-antolamenduak orokorra eta funtzionala ere izateko duen beharrianarekin. Eskualde-kontzientzian zedarritutako kultura berezituaren existentzia onartu eta bultzatu beharko lukeen eskala anitzeko administrazioak herrialde desberdinetako antolaketa-egoerak aintzat hartu beharko lituzke, lurralde-muga orokorragoen gainetik, epe-muga luzeagoetarako bederen. Hala bada, alde batetik Hego Euskal Herriko larregizko lurraldearen zatikatzearen (batik bat Euskal Autonomia Erkidegoko zona funtzionalekin baina baita Nafarroan ere) eta bestetik Ipar Euskal Herriko politika zentralistaren (estatukoa, erregionala eta departamendukoa) aurrean kontzeptu kolektibo berritzaileak ikusi ditugu ernaltzen. Jadanik aspalditxo hasiak dira sartzen tokiko Agenda 21 direlakoak, edota herrialdeen arteko elkarkidetzak, hain justu ere Euskal Herria 2020 estrategiari modu samurrean bidea irekiz. Mugaz bestaldean Lurralde Koherentziarako eskemen baitan «pays» deritzen kontzeptuak indarra hartu duela dirudi, agente sozialei lekua eginez hain justu ere mugarrietako bat Baiona-Angelu-Miarritze konurbazio aglomeratuaren bihotzean zuzenki eragiten duena. Ekarpenean horietariko batzuk ere liburuan aurkituko ditugu.

Fenomeno horiekin batera sarritan berreskuratutako ditugun iradokizunak datozkigu gogora: hiri-ehuna lurraldera zabaltzea (lurralde hiritartua), landagunearen neurritz kanpoko urbaniza-

zioa (hiritartze lausotua eta kontra-urbanizazioa), zentraltasunaren nukleo alternatiboak eta hiri-lurraldea dikotomia leuntzeko bata eta bestea batera planifikatzeko ahaleginak, hiriek periferietara «jaurtikitako» zerbitzuak, industriari luzaroan emandako arretaren eta ingurumenari zor zaion begira-menaren arteko anbiguotasuna, lekuan lekuko identitate eta nortasun propioaren desitxuratzea, espazio fisikoetako fisonomiaren eraldaketa bortitzak, ekipamendu erraldoiak eta horrek guztiak daramatzen arazo soziokulturalak nahiz politiko ekonomikoak. Laburbilduz, azken urteotako molde-egikerak eskatzen duen lurzoru- eta energia-kontsumo altuegia, etengabeko antropizazioa eta amaigabeko hornidurak eragindako mekanismo garesti baizen jasangaitzaren errainak agerian jarriko dizkigute.

Lurralde-antolaketan diharduten hainbat adituren iritziz lurraldearen eta ingurumenaren munduko eztabaidek eta gatazkek desafio politikotik zientifikotik baino gehiago baldin badute, hori horrela kontsideratzea zilegizkoa da guretzat herentzian tokatu zaigun lurraldea sozialki eraikitako espazioa delako, gaitasun eraldatzailea eta askotan asaldatzailea duten agenteek euren aztarna bertan uzten baitute; iraganean, gaurko egunetan bai eta etorkizunean ere. Datorrenari begira, lurralde-antolamendua eta kudeaketa oraingoetatik arras desberdinak aurkituko ditugu gure ustetan ere, besteen artean faktore antropikoen erruz. Horietariko batzuk dentsitate baxuko etxebizitza eta merkataritza-gune handien lurralde-eredu anglosaxoiko paradigmatikoa lirateke, kasurako jendea herrietara bueltatzea dakartenak baina ez nekazaritza edo abeltzaintzara baizik kommutaziozko elementu bihurtuak. Bitartean, lurralde-antolaketaren piramide-kontzeptzioa ere krisian erori

dela ematen du, gizartearen parte-hartze aktiboa bultzatuz populazioaren kontsensuarekin.

Zentzu horretan oraintsu nabarmentzen dauden Eibarko manifestua bezalako dokumentuak lurralde-antolamenduaren gidalerroak berregunertzeko momentuan doaz areagotzen, teknika zientifiko eta ideologiko horri loturiko arlo juridiko-politiko-administratiboa, ingurumena, gizartea, ekonomia eta mugikortasuna holistikoki erlazionatuz, komentatzen gauden liburuan ondo islatzen den legez. Ikuspegi teknokratikoa baino gizatiarra areago defendatzen duen antolaketa aldarrikatzen da, batik bat epe ertainekoa eta luzeagokoa, eskualdeko foro-bilguneetatik koordinazio horizontalaz maila lokalean oinarritua. Korridore ekologikoen traza koherentea hobesten da, ingurumen-balioak babes-turiko eremuen gestio egokiaz ordenatuak eta gizartea jasotzaile edo kontsumitzaile baino areago eragile aktibo bilakatua, bere barnean dauden desorekak konpontzeko asmoz. Benetan errentagarriak lirakeen onurak ekoizten dituzten jarduerak lehenetsiko lirakeke, azpiegituren sustraiko arazoak ekidinez, zeren eta probintzia eta hiri guztiek ez baitute zertan kompetentzia egoskorretan ibili. Guretzako, testuinguru horretan premiazkoa da gastatuegiak ditugun hitz potolo hutsal samarren kontrakotasunak identifikatzea,

buelta ematea, eta, horrekin batera, izendapen dudagarri batzuk kolokan jartzea. Besteen artean «Euskal Hiria» delakoa, ez baita derrigor lurralde-antolamenduari bere horretan aplikagarria zaion terminoa; zinez literarioa, metaforikoa eta utopia pitin batez formulatua baino. Dagoeneko, herrietatik at guztiz «hiritarra» den elkarbizitzako pentsamendu hura lurraldeen arteko norgehiagoka eta kompetentzia itsuaren zorroan sartua baita ukagatu. Zakuto horrek hondoak ilunegiak eta ustelegiak izango ditu seguruenik, barrenari darion kiratsa usainduta.

Ohartzen bagara, mintzo garen dokumentu eta testuetatik gehientsuenek basikoki industrializazio berankor edo berantiarraren fenomenoan daukate abiapuntua. Izan bada, hastapeneko aipuak dioen gisan, oraindik ere lurraldeko estrategia orokorren «hutsunea sumatzen da, industria-jarduerak izan dituzten hiri-eremuetan, ekoizpenaren ildotik. [Ezen] porrot egin duen eredu ekonomiko batean gaude murgilduta (itotzekotan ere), hein handi baten, hirigintza-burbuilak eraginda, higiezinaren negozioaren gidaritza itsutuak agintea bere esku izan duen emaitza gisa. Bada, arlo beretik, hirigintzatik alegia, etorri daiteke behar dugun eredu-aldaketarako trantsizio-prozesua»³.

Isusko Vivas Ziarrusta

3- Bilbao, A. (2013). "Brownfields'...", *Aldiri*, 15, 6.